



# GAZTE- EKIN BIZKAIA EGITEN DBH 4.



<https://gazteak.bizkaia.eus>



# DIMENTSIO ETIKOA

## GAITASUNA

Dimentsio etikoa (konpromiso etikoa).

## LOTUTAKO GAITASUNAK

Arazo ebazpena, aldaketara egokitzea, talde-lana, zentzu kritikoa.

## GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Giza printzipio unibertsalen arabera gidatzeko gaitasuna bezala definitu daiteke; errespetu, zintzotasun eta integritate kultura baten eta gizarte-balio jakin batzuekiko konpromisoaren mende jardutea dakarrena.

## HELBURUAK



- Jarrera pentsakor eta kritikoa sustatzea, elkarrizketa eta arazoia bultzatuz.
- Sinesmen eta balio desberdinak kontuan hartzea.
- Zentzu etikoa gizarte-aldaketarako elementutzat hartzea.
- Arduraz jokatzeko ondasun morala bilatuz.
- Jarrera pertsonala hartzea dilema etikoen aurrean.

## KURTSOA

DBH 4.

## GAITASUNA ESKURATZEA

Gaitasun hau lortzeko, beharrezkoa izango da balio positibo moralak ezagutu eta hartzea, arazo etikoei eta haien ekintza eta erabakien ondorioei buruz pentsatzea, argudiatzea eta hausnartzea, autonomia eta irizpide propioa izatea, erabakiak arauetara egokitzea, aniztasuna onartzea eta pertsonen ongizatearen alde lan egitea.



# DIMENTSIO ETIKOA

## GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

### 1. Robin Hood

#### DESKRIBAPENA

Ariketa klase osoarekin egiten da. Proposatzen den jarduera gelan dilema etikoei buruzko debate bat egitea da, ikasleen artean eztabaida egin ahal izateko. Kasu honetan, Robin Hood-en planteatzen den bezala, gaia zera izango da: aberatsei lapurtzea ondoren pobreei emateko.

### 2. Milioiak ostikadak emateagatik

Orain azaldutako dinamika hau bera egin daiteke berriz, zenbait futbolarik kobratu ahal duten diru-kopuru izugarria eztabaidagai gisa jarritz. Gizartearentzat lan egiten duten edo bizitzak salbatzen dituzten beste profesional batzuek diru-sarrerera askoz baxuagoak dituzten bitartean.

### 3. Milioiak pantaila baten aurrean

Azaldutako dinamika horiek berak egin daitezke berriro ere, eztabaidagai gisa sare sozial eta plataforma berriak jarritz. Horietan protagonistek diru ugari jasotzen dute pantaila baten aurrean lan eginez (twitch, youtube); beste profesional batzuek, berriz, askoz diru gutxiago.

Etikaren ikuspegitik azter daitezkeen beste gai batzuk berdintasuna, garapen jasangarria, heriotza-zigorra, prostituzioa legeztatzea, etab. Izan daitezke.

#### DENBORA-ESTIMAZIOA

Ordu bat.

#### BEHARREZKO MATERIALA

Orriak.

#### EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Balioetan oinarritutako arrazoibideak.
- Eztabaidaren garapena. Iritziak errespetatzea.
- Arrazoibide pertsonalen bidez gidatutako iritziak ematea.
- Egindako ekarpenak.
- Orientatzailearen ikuskapena.
- Ikasleek jarduerari buruz duten iritzia.

